

# EUSKERA teknikoa dela eta

Noizean behin, deskantsuren bat behar izaten dugu geure bidean, gero aurrerantz jarraiki ahal izateko. Bate-tik, egin dugunaren perspektiba jartzen dugu begien aurrean; eta bestetik, emandako pausoen gorabeherak aztertutik, gerorako plana prestatzen dugu.

Euskara teknikoaren arloan ere, berdin agrtzen zaiku behar hau. Euskararen beharra sentitzen dugunok, euskararen balioaz arduratzen\* gara, eta euskara erabilgarri bihurtu nahi dugu. Eta hau jakintzaren arlo guztietan lortu gura\* dugu.

Orain artean pauso batzuk emanak ditugu, eta, pauso hauen esannahia aztertuz gero, aurreranzko plana antolatatu behar dugu.

Lehenik, nortzuk dira euskara teknikoaren problema konpontzen saiatu behar dutenak? Bistan da, ez dela nahikoa euskara menperatzea, gai tekniko eta zientifikoak ere menperatu behar baitira. Beraz, dei bat zabaldu behar dugu geure Eskola eta Unibertsitateetan, euskara teknikoaren alde mugimendu bat osa dadin. Eskatu egin behar diegu geure unibertsitariei, Herriari ZOR dioten mesedea.

Bigarenik, zein izanen litzateke bidea? Nik neuk ez dakit zein izanen litzatekeen hoberena; baina, ezer hoberik agertzen ez den bitartean, jadanik\* askok praktikan jarri duena proposatuko nuke.

Nork bere arloan, edo berak ondoenik erabiltzen dituen gaietan, euskaraz presta ditzake bere lantxoak (apunteak eta abar). Jokamolde honek bere alderdi on eta xarrak ditu. Xarrak, zeren\*, gure Herria oraino gordinegi egonik goimailako ikastetak euskaraz bereganatzeko, gutti batzuek baino ez bailituzkete lan hau\* irakurriko. Eta alderdi onak ere bai, zeren, era honetan, erraztasun haundia lortuko baikenuke euskara erabiltzen. Kontuan har, ez dugula geurez trebetasun hau, baizik eta geure egintzaz lortu behar dugula.

Honela, lehenik euskara teknikoaren erabiltzen saiatu behar dugu, eta hau entrenamendu baten antzekoa izango litzateke. Hau da oraingoz medio bezala egin behar duguna, nahiz eta geroagorako helburua izan.

Hala ere, urrats\* hau emanik, hor geratuko bagina, urrats alfer, urrats antzua\* izanen litzateke. Esan dugunaren arauera,\* pauso hori gure euskal kulturaren hutsunea betetzeko baino ez da; eta gero pauso horrek eman kor izan behar du. Kultura Herri baten agerpena da, beraz Herriak sortua. Eta Historiak (hainbat kausa direla eta) eginbide\* batetan jarri gaitu: geure Herriaren kulturaren berpiztaile eta sortzaile izan behar dugula, alegia.\*

Goazen aurrerantz. Euskara teknikoaren egiterakoan, ezin dezakegu orga\* idien aurrean jar, hau da, ezin dezakegu etxea teilatutik has, oinarri eta zimentarrietatik baizik. Euskara teknikoaren saila, basik landu gabea, oso zabala da eta horregatik astiro joan behar dugu, behar diren pausoak emanez.

Nondik has? Goi mailako lanak utzi gabe, behe mailako liburuak prestatu behar ditugu. Haurrentzat liburutegi aberats bat zertu behar dugu. Liburu hauk gertatzean, hiztegi teknikoaren sortuz joan da, eta hiztegi hori hobetu egingen da eguneroko praktikaz.

Horregatik, dei bat zabaldu behar dugu geure ikasle eta irakasleen artean, denen artean planifikazio hau aurrerantz eramateko. Asmo onik ez da falta. Orain, egin-tzak erakutsiko dauku xede\* hauen egitasuna.

J. R. ETXEBARRIA

dauku, dausku, digu  
dezakegu, daikegu  
diegu, dautsegu, diotegu

diote, dautsoe  
ditzake, daikez  
zaiku, jaku, zaigu